

# 27

Kulturaren Euskal Behatokiaren Estatistika eta Azterketa Bilduma  
Colección de Estadística y Estudios del Observatorio Vasco de la Cultura

# EAEko kultura-arloko enpresen, enpleguaren eta lan-merkatuaren analisi



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



**Kulturaren**  
**Euskal Behatokia**  
Observatorio Vasco  
de la Cultura

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak*  
sarearen katalogoan aurki daiteke:  
<http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

ARGITARALDIA: 1.a 2016ko abuztua

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura saila

INTERNET: [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)

ARGITARATZAILEA: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

DISEINUA: Canaldirecto · [www.canal-directo.com](http://www.canal-directo.com)

# Aurkibidea

<b>00. Aurkezpena</b> . . . . .	4
<b>01. Kultura-industriak</b>	
1.1. Kultura-arloko enpresa-egituraren joerak . . . . .	5
1.2. Konparazioa beste autonomia-erkidego batzuekin . . . . .	8
<b>02. Kultura- eta sormen-industriak</b>	
2.1. Kultura- eta sormen-arloko enpresa-egituraren joerak . . . . .	10
<b>03. EAEko kultura-arloko lan-merkatua</b>	
3.1. Kultura- eta sormen-jardueretan diharduten pertsonen profila . . . . .	13
3.2. Kontratazioak kultura- eta sormen-jardueretan . . . . .	14
3.3. Enplegu-eskariak kultura- eta sormen-jardueretan . . . . .	17

# Aurkezpena

Kulturaren Euskal Behatokiak (OVC-KEB) EAEko kultura-arloko enpresei eta enpleguari buruzko laugarren txostena aurkeztu du, 2010ean hasitako analisi sortari jarraipena emanda. Azterlan horren berezitasuna da berau egiteko kanpoko honako iturri hauetara jo dutela: Eustat, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila, Lanbide eta EIN. Era horretan, beste erakunde batzuek sortzen duten informazioaren balioa nabarmendu du, eta bere estatistika sektorialek eskaintzen duten ikuspegia zabaldu.

Kulturakotzat jotzen diren jarduerak eta lanbideak aldeztu aurretik aukeratuta, EAEko kultura-sektoreko enpresa-sarearen eta lan-merkatuaren ustiapen espezifikoak egin dira. Datuak Eustaten eta Lanbideren direktorio eta erregistroetakoak dira. Enpleguari buruzko datuak Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak eman ditu BAiren ustiapen espezifiko baten bitartez. Kasu horretan konparazioak egin dira beste autonomia-erkidego batzuekin.

Txostenak bi zati ditu. Lehenengoan, EAEko enpresa-, kultura- eta sormen-egituraren bilakaeraren alderdirik nabarmenenak azpimarratzen dira eta, bigarrenengoan, enpleguari eta lan-merkatuari buruzko datuak aurkezten dira, bai eta kontratazioak eta enplegu-eskariak aztertu ere.

Illo horretatik, nabarmentzekoa da datu berriak sartu direla enpresa-egiturari eta enpleguari dagokienez. Sektorea ikuspegi zabalago batetik aztertu ahal izateko, jarduera ekonomiko berriak hartu dira aintzat Eustaten direktorio eta erregistroetan (hots, arkitektura, publizitatea, bideo-jokoak, itzulpengintza eta interpretazioa, eta kultura-hezkuntza), eta handitu egin dira berri-agentzien datuak. Hala, beste analisi-eremu bat sartu da —sormen-industriak—, 2013ko eta 2014ko datuekin. Horiei esker, bada, ikuspegi zabalagoarekin aztertu ahal izango da sektorearen ebaluazioa aurreragoko edizioetan.

# 1. Kultura-industriak

EAEko kultura-arloko enpresei eta enpleguari buruzko txostenaren edizio honetan kultura- eta sormen-industriari (KSI) buruzko datuak ematen badira ere, lehen kapituluak kultura-industriari buruzko datuak ditu hizpide —zentzu hertsian—, eta kultura-arloko enpresa-egitura aztertzen du, bai eta beste autonomia-erkidegokoarekin alderatu ere. Hurrengo kapituluan, sormen-industriekin batera aztertzen dira.

EAEko kultura-arloko enpresa-egitura aztertzeko, kultura-arloko honako jarduera ekonomiko hauek hartu dira kontuan:

— Diseinu-, sormen-, arte- eta ikuskizun-jarduerak.

- Kultura-produktuen merkataritza.
- Arte grafikoak eta grabatutako euskarrien erreprodukzioa.
- Zinematografia, bideo, irrati, telebista eta musika-edizio jarduerak.
- Argazkigintzako jarduerak.
- Liburuen argitalpena, egunkariak, artxiboak, museoak eta beste kultura-jarduerak batzuk.
- Albiste-agentzien jarduerak.
- Irudi eta soinuak euskarriak eta aparatuak zein musika-instrumentuak egitea.


## 1.1. Kultura-arloko enpresa-egituraren joerak

### Kultura-sektorea ahultzen ari da

EAEko enpresa-egiturak % 12,8ko jaitsiera metatua izan du 2009-2014 epealdian. Beherakadarik esanguratsuena 2009 eta 2011 artean izan zen; epealdi horretan 16.400 enpresa galdu ziren (10.700 2009 eta 2010 artean, eta 5.600 2010 eta 2011 artean). 2011-2012 artean, joera arindu egin zen, baina 2012 eta 2014 artean % 3,9ko beherakada metatua izan zuen.

### 1. Irudia.

Enpresa kopuruaren bilakaera 2009-2014 epealdian.




Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktorioa, EUSTAT.

**Kultura-sektoreak % 16,2ko jaitsiera** izan zuen **2009 eta 2014 artean**; 1.028 enpresa gutxiago izan dira bitarte horretan. 2011 eta 2013 artean, beherakada handiena izan zuen sektoreak, 658 enpresa; hau da, sektorearen enpresa-egiturak % 12,2ko galera izan zuen.

**Krisi ekonomikoak kultura-sektoreari eragin dio, bereziki azken urteetan.** EAEko enpresa-multzoan galdutako enpresen bikoitza galdu da kultura-arloan; alegia, 2012 eta 2014 artean, EAEko enpresa-egitura % 3,9 murriztu zen, eta kultura-sektoreko enpresa-egitura, berriz, % 6,8.

## 2. Irudia.

Kultura-enpresa kopuruaren eta enpresa guztien bilakaera 2009-2014 epealdian.




Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktorioa, EUSTAT.

Jarduera ekonomiko guztiarekin lotuta duen adierazgarritasunari dagokionez, kultura-sektorearen garrantziari eutsi egin zaio, aldaketa txiki batzuekin, aztertutako epealdian (% 3,6 2009an eta 2010ean; % 3,7 2011n; % 3,5 2012an; % 3,4 2013an eta 2014an).

## 3. Irudia.

Kulturako enpresen kopuruaren eta enpresa guztien gaineko ehunekoaren bilakaera 2009-2014 epealdian.



Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktorioa, EUSTAT.


## Bizkaiak eutsi egin dio, eta Araba nabarmen jaitsi da ehunekoetan

Kultura-enpresen 2009 eta 2014 arteko bilakaeran, lurralde-historikoei erreparatuta, **Araba izan da gehien ahuldu dena, % 19,7ko beherakada izan baitu.** Ondoren, Gipuzkoa (% 18,8) eta, gero, Bizkaia (% 13,4)

Azken bi urteetako datuen arabera (2013-2014), Bizkaiak eutsi egin dio; % 0,6 baino ez da igo. Nolanahi ere, Gipuzkoa eta, hein handiago batean, Araba ahuldu egin dira; % 2,9 eta % 6,5 hurrenez hurren.

## 4. Irudia

Kulturako enpresen kopuruaren bilakaera lurralde historikoaren arabera. 2009-2014.



Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktorioa, EUSTAT

## Kultura-enpresen erdiak sormenean eta merkataritzan dihardute


Diseinu-, sormen-, arte- eta ekitaldi-jarduerak eta kultura-produktuen merkataritzak kultura-enpresen erdia baino gehiago hartzen dituzte oraindik ere.

2010az geroztik, 10 kultura-enpresatik 3 diseinu-, sormen- eta ekitaldi-jardueretan dihardute, eta 10 enpresatik 2 kultura-produktuen merkataritzan.

Jarduera horietan diharduten enpresen % 50 baino gehiago Bizkaian daude; % 30 eta % 40 artean Gipuzkoan; eta % 10 inguru Araban.

### 5. Irudia.

Kultura-enpresak jarduera ekonomiko nagusiaren arabera. 2014.



- Diseinu-, sormen-, arte- eta ikuskizun-jarduera
- Kultura-produktuen merkataritza
- Arte grafikoak eta grabatutako euskarrien erreprodukzioa
- Zinematografia, bideo, irradi, telebista eta musika-edizio jarduerak
- Argazkigintza jarduerak
- Liburu eta egunkarien argitalpena eta beste argitaratze-jarduera batzuk
- Bestelako Jarduerak

Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktoria, EUSTAT.


## Gorabeherak kultura-enpresen jardueran

2010az geroztik, % 40,3 igo dira liburutegi, agiritegi eta museoko jarduerak eta beste kultura-jarduera batzuk (70 enpresa gehiago). Kontuan izan behar dugu gutzitzkoaren % 4,0 baino ez dutela irudikatzen.

Merkataritza-jarduerak izan du beherakadarik handiena, 337 enpresa gutxiago; hau da, % 24ko beherakada.

### 6. Irudia.

Kultura-enpresen bariazioa 2010arekiko. Absolutuak. 2010-2014.



Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktoria, EUSTAT.

Ehunekotan, berri-agentziak jaitsi dira gehien, % 50,9 (56 enpresa gutxiago; % 27,0ko jaitsiera 2013 eta 2014 artean). Nolanahi ere, kontuan izan behar dugu gutzitzkoaren % 1,0 irudikatzen dutela.

### 7. Irudia.

Kultura-enpresen pisua jarduera ekonomikoaren arabera, 2010arekiko aldaketa-ehunekoa. 2010-2014.

	Pisua 2014	2010-2014 aldaketa % -a
Diseinu-, sormen-, arte- eta ikuskizun-jarduerak	% 33,6	% -5,6
Kultura-produktuen merkataritza	% 20,6	% -23,5
Arte grafikoak eta grabatutako euskarrien erreprodukzioa	% 15,2	% -14,7
Zinematografia, bideo, irradi, telebista eta musika-edizio jarduerak	% 11,3	% -15,5
Argazkigintzako jarduerak	% 8,6	% -3,8
Liburuen eta egunkarien argitalpena eta beste argitaratze-jarduera batzuk	% 5,4	% -20,1
Liburutegi-, artxibo- eta museo- jarduerak eta bestelako kultura-jarduerak	% 4,0	% 49,3
Albiste-agentzien jarduerak	% 1,0	% -50,9
Irudi eta soinu euskarriak eta aparatuen zein musika-instrumentuak egitea	% 0,4	% 26,7

Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktoria, EUSTAT.

## 1.2. Konparazioa beste autonomia-erkidego batzuekin

Hona hemen Enpresen Direktorio Nagusiaren (EDN, EIN) datuak, kultura-enpresei buruzkoak, eta Biztanleria Aktiboaren Inkestaren (BAI, EIN) datuak, kultura-enpleguari buruzkoak. EAEko datuak beste autonomia-erkidego batzuetakoekin alderatuko dira, EAE Estatuaren gainerakoarekiko zer egoeran dagoen ikusi ahal izateko.


### Gora egin du kultura-enpresen pisuak, eta behera egin du enpleguaren pisuak Estatuaren guztizkoarekiko

Kultura-enpresen adierazleen arabera, **bigarren tokian dago EAE beste autonomia-erkidegoekiko konparazioan.** Aurreko urteetan, hirugarren tokian zegoen, Kataluniaren atzetik; baina, 2014an, gora egin zuen Estatuaren guztizkoan, eta % 3,5etik (2012an) % 4,1era igaro zen (2014).

2014an, **bigarren tokian zegoen kulturako enpresek erkidego bakoitzeko enpresa guztiekiko duten pisuari dagokionez** (% 4,9 Madril, % 4,1 EAE eta % 3,8 Katalunia) eta **hirugarren tokian 100.000 biztanleko kultura-enpresen ratioan**, (374,2 Madril, 289,3 Katalunia eta 276,4 EAE).

#### 8. Irudia.

Kultura-enpresen ehunekoa guztizkoarekiko eta ratioa 100.000 biztanleko. 2014.




Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia, EIN.

Kultura-enpleguari dagokionez, BAIren datuen arabera, **EAE Estatuako seigarren autonomia-erkidegoa da; 22.700 kultura-enplegu zituen 2014an, 2013an baino % 0,4 gutxiago baino ez, baina 2011n baino % 22,0 baino gutxiago.**

#### 9. Irudia.

Enpleguaren bilakaera EAEko kultura-enpresetan (milaka). 2011-2014.




Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta (BAI), EIN. Urteko batezbestekoak.

**Kultura-enpleguak guztizkoarekiko duen pisuari helduta** (% 2,6), Madrilen (% 4,7) eta Kataluniaren (% 4,0) atzetik dago, 2012arekiko jaitsi bada ere (% 3,1). Seigarren tokian dago Estatuako beste autonomia-erkidego batzuen aldean, eta hiru toki beherago dago 2012arekiko, Nafarroaren (% 3,0), Galiziaren (% 2,8) eta Balearren (% 2,7) atzetik.

#### 10. Irudia.

Kultura-enpleguaren ehunekoa guztizkoaren gainean eta kultura-enpresetako enplegua (milaka). 2014.



Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta (BAI), EIN. Urteko batezbestekoak.




## Hamar establezimendutik zortzik 2 enplegu baino gutxiago dituzte oraindik

Bi enpleguko edo gutxiagoko establezimenduen pisuak (% 82,8) apur bat egin du gora mikroenpresa kopuruaren murrizketagatik (3 eta 9 enplegu artean), azken horiek % 13,2 izatetik % 12,7 izatera igaro baitira.

### 11. Irudia.

Kultura-establezimenduak enplegu-bolumenaren arabera. 2010-2014.



Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktorioa, EUSTAT.

## 2. Kultura- eta sormen-industriak

Kapitulu honek EAEn kultura- eta sormen-arloko enpresa-egituraren analisia biltzen du. Analisia egiteko, aurretik aurkeztutako kultura-industrien datuak hartu dira aintzat, eta sormen-industriei buruzkoak gehitu dira.

Ilido horretatik, kultura-arloko jarduera ekonomiko hauek hartu dira kontuan:

- Diseinu-, sormen-, arte- eta ikuskizun-jarduerak.
- Kultura-produktuen merkataritza.
- Arte grafikoak eta grabatutako euskarrien erreproduktzioa.
- Zinematografia, bideo, irrati, telebista eta musika-edizio jarduerak.

- Argazkigintza jarduerak.
- Liburuen argitalpena, egunkariak, artxiiboak, museoak eta beste kultura-jarduerak batzuk.
- Albiste-agentzien jarduerak.
- irudi eta soinuko euskarriak eta aparatuak zein musika-instrumentuak egitea.

Eta honako jarduera ekonomiko hauek sartu dira analisira:

- Bideo-jokoak.
- Arkitektura.
- Publizitatea.
- Itzulpengintza eta interpretazioa.
- kultura-hezkuntza.

### 2.1. Kultura- eta sormen-arloko enpresa-egituraren joerak

#### Sormen-industriek kultura-sektorea indartzen dute

Arkitektura, publizitate, bideo-joko, itzulpengintza eta interpretazio eta kultura-hezkuntza jarduerak kultura-sektorearen analisira sartzearekin batera, handitu egin da beren indarra EAEn enpresa-egituraren. Kultura-sektorearen enpresa-egitura sormen-industriak aintzat hartu gabe aztertzen baditugu, horrek guztizkoaren % 3,4 irudikatzen du;

baina, aintzat hartzen baditugu, **horren bikoitza irudikatzen du, hots, % 6,8.**

2013 eta 2014 artean, EAEn enpresa-egiturak % 1,3ko beherakoa izan zuen (157 mila enpresatik 155 mila enpresara igaro zen). Hala eta guztiz ere, kultura-industria eta sormen-industria EAEn

enpresa-egituraren guztizkoaren erdia baino gutxiago murriztu ziren. Epealdi horretan, % 0,6 ahuldu ziren kultura- eta sormen-industriak.

## 12. Irudia.

Oinarrizko adierazleak. 2013-2014.

	2013	2014
Enpresen kopuru osoa (EAEko sektore ekonomiko guztiak)	157.405	155.306
Kultura- eta sormen-arloko enpresen kopuru osoa	10.654	10.585
Kultura- eta sormen-arloko enpresen ehunekoak enpresa guztiekiko	% 6,8	% 6,8
Kultura- eta sormen-arloko enpresen ratioa 100.000 biztanleko	486,7	483,0
Establezimenduak / kultura- eta sormen-arloko enpresak (ratioa)	1,04	1,04

Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktorioa, EUSTAT.


## Kultura- eta sormen-industrien erdia Bizkaian dago

Kultura- eta sormen-industrien enpresa-egituraren % 51,7 Bizkaian dago; % 35,8 Gipuzkoan, eta % 12,4 Araban.

Kultura- eta sormen-enpresa guztien datuak industria hertsiki kulturalarekin alderatuz gero, ia berdina da (Bizkaia % 52,4, Gipuzkoa % 36,5 eta Araba % 11,1).

## 13. Irudia.

Kultura- eta sormen-arloko jarduera ekonomikoak dituzten enpresen banaketa lurralde-historikoetan. 2014.



Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktorioa, EUSTAT.

Biztanleko ratori dagokionez, Gipuzkoa nabarmentzen da. **2014an, 100.000 biztanleko kultura-enpresen ratioa 483,0 zen EAEn, eta Gipuzkoan, berriz, 531,5.**

Lurralde bakar batean igo da apur bat ratioa; hots, Bizkaian

## 14. Irudia.

Kultura- eta sormen-enpresen ratioa 100.000 biztanleko. 2013-2014.

	2013	2014
Araba	418,7	409,4
Bizkaia	471,5	473,5
Gipuzkoa	541,8	531,5
<b>Guztira</b>	<b>486,7</b>	<b>483,0</b>

Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktorioa, EUSTAT.

## Arkitektura arlokoak dira enpresa gehienak

Kultura- eta sormen-enpresen % 29,8k arkitektura-jardueratan dihardute; % 16,9k diseinu-, sormen-, arte- eta ekitaldi-jardueretan; % 10,4k kultura-produktuen merkataritzan; eta % 9,85ek publizitatean (15. Irudia ikusi).


Kultura- eta sormen-industrien bilakaera urtebeteko analisi-marjinarekin hartu badaiteke ere aintzat, ikus daiteke aldaketarik epealdi horretan.

Sektorean % 5eko baino gehiagoko pisua duten enpresak aztertuta, ikusten da **handitu egin dela apur bat diseinu eta sormeneko eta publizitateko enpresen pisua** (% 3,2 eta % 5,0 handitu da, hurrenez hurren, enpresen kopurua).

Nolanahi ere, **txikitu egin da kultura-produktuen merkataritzako, zinema eta bideoeko eta itzulpengintza eta interpretazioko enpresen sektoreko pisu erlatiboa** (aurrenekoena % 6,4, zinema- eta bideo-jarduerekin erlazioatutakoena % 1,8 eta itzulpengintzakoena % 2,1).

## 15. Irudia.

Kultura- eta sormen-enpresak jarduera ekonomiko nagusiaren arabera. 2014.



- Diseinu-, sormen-, arte eta ikuskizun-jarduerak
- Kultura-produktuen merkataritza
- Arte grafikoak eta grabatutako euskarrien erreproduktzioa
- Zinematografia, bideo, irradi, telebista eta musika-ediziozko jarduerak
- Argazkilaritza
- Liburuen eta egunkarien argitalapena eta beste argitaratze-jarduerak
- Liburutegi, artxibo eta museo jarduerak, eta beste kultura-jarduerak
- Albiste-agentzien jarduerak
- Irdi eta soinu euskarriak eta aparatuen zein musika-instrumentuen egitea
- Arkitektura
- Publizitatea
- Itzulpen-gintza eta interpretazioa
- Kultura-hezkuntza

Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktorioa, EUSTAT.

Nabarmentzekoa da **berri-agentzien beherakada**; izan ere, kultura- eta sormen-industriaren % 1,4 irudikatzen badute ere, **% 17,1 murriztu dira**. (16. Irudia ikusi).

Azkenik, eta aurretik kultura-industriaren datuetan ikusi dugun bezala, 0 eta 2 enplegu arteko establezimenduek osatzen dituzte nagusiki kultura- eta sormen-industriak (% 86,0 2014an); eta, jarraian, 3 eta 9 enplegu arteko mikroenpresek (% 10,3 2014an).

## 16. Irudia

Kultura- eta sormen-enpresak jarduera ekonomiko nagusiaren arabera. 2013-2014.


	2013	2014
Arkitektura	3.159	3.158
Diseinu-, sormen-, arte- eta ikuskizun-jarduerak	1.740	1.787
Kultura-produktuen merkataritza	1.139	1.097
Publizitatea	989	1.038
Arte grafikoak eta grabatutako euskarrien erreproduktzioa	862	807
Zinematografia, bideo, irradi, telebista eta musika-ediziozko jarduerak	614	603
Itzulpen-gintza eta interpretazioa	560	548
Argazkigintza	462	456
Kultura-hezkuntza	429	428
Liburuen eta egunkarien argitalapena eta beste argitaratze-jarduerak	278	287
Liburutegi, artxibo eta museo jarduerak, eta beste kultura-jarduerak	226	212
Albiste-agentzien jarduerak	175	145
Irdi eta soinu euskarriak eta aparatuen zein musika-instrumentuen egitea	19	19
Bideo-jokoak	2	1

Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktorioa, EUSTAT.

Mikroenpresen pisua pixka bat handiagoa zen 2013an 2014an baino. Beherakada txiki horren ondorioz, apur bat areagotu dira are txikiagoak diren enpresak (0 eta 2 enplegu).

## 17. Irudia.

Kultura-establezimenduek enplegu-bolumenaren arabera. 2013-2014.



Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktorioa, EUSTAT.

## 3. EAEko kultura-arloko lan-merkatua

Kapitulu honek kultura-enpleguari buruzko datuak aurkezten ditu. EAEko kultura-arloko lan-merkatua aztertzeko, Lan Merkatuaren Erroldaren (LME) eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren datuak bildu dira. Lanbideren datuekin, kultura-arloko honako lanbide hauei lotutako kontratazioak eta enplegu-eskariak aztertu dira:

- Arkitektoak, hirigileak eta diseinatzaileak.
- Analistak eta software eta multimedien diseinatzaileak.
- Artxibozainak, liburuzainak eta antzekoak.
- Idazleak, kazetariak eta hizkuntzalariak.
- Artista sortzaileak eta interpretatzaileak.
- Jolas-, kultura- eta kirol-jarduerak.
- Ikus-entzunezko grabaketako eta irratidifusioko teknikariak.
- Artisauak.
- Arte grafikoetako ofizialak eta langileak.
- Publizistak.

### 3.1. Kultura- eta sormen-jardueretan diharduten pertsonen profila

#### Kultura-arloko lan-merkatuarekin lotutako profilak

Txostenaren aurreko edizioan ikus zitekeen bezala, Lan Merkatuaren Erroldaren (LME) 2011ko datuen arabera, **kultura-sektorearekin lotutako biztanle aktiboak 26.288 dira EAEn, eta horietatik % 15,6 daude langabezia.**

Biztanleria aktiboaren talde horren profilari erreparatuta, hauek gailentzen dira: gizonezkoak (% 56,7); 35 eta 49 urte artean (% 46,2); unibertsitate-ikasketak dituztenak (% 40,9); eta Bizkaian bizi direnak (% 57).

#### EAEko kultura-arloko lan-merkatuan okupatutako pertsonen profila

- Gizona (% 61,5)
- 35 eta 49 urte artean (% 49,5)
- Unibertsitateko ikasketak dituenak (% 42,7)
- Bizkaian bizi dena (% 53,4)

## 3.2. Kontratazioak kultura- eta sormen-jardueretan


### Kontratazioak gora egin du kultura- eta sormen-arloko jardueretan

2013 eta 2015 artean, **Lanbiden erregistratutako kontratuak, oro har hartuta, % 11,8 gehiago izan dira** (678.946 izatetik 759.149 izatera), **kultura- eta sormen-arloko lanbideetan erregistratutako kontratazioak, aldiz, % 26,7 gehiago izan dira** (hala, 2015ean 51.853 kontratu izan dira, guztien % 6,8).

Bilakaera irregularra izan dute kontratuak epealdi horretan; 2013tik 2014ra, EAEko kontratuak % 27,7 egin dute gora, baina, 2014 eta 2015 artean, aurreko gorakadaren ia erdia galdu dute (-% 12,5). Nolanahi ere, 2013tik 2015era bitartean, kultura-sektoreko kontratazioek gorako joera izan dute; 2013tik 2014ra, gutxi igo zen kontratazioen kopurua (% 3,8), baina 2014 eta 2015 artean, esponentzialki igo zen (% 22,1).

#### 18. Irudia.

Kultura- eta sormen-arloko lanbideetan erregistratutako kontratu kopuruaren bilakaera eta guztizkoaren gaineko ehunekoa. 2013-2015




Iturria: Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzua. Eusko Jaurlaritzia.

### Behin-behinekotasunak indar handia kontratazioan

Kontratu berrien ia **% 98 aldi baterakoak dira**; horien artean, jolas-, kultura- eta kirol-jardueren okupazioak zein artista sortzaileak eta interpretatzaileak nabarmentzen dira. Aldi baterako kontratuen artean, **egun bateko edo gutxiagoko kontratuak dira nagusi (% 64,5 2015ean).**

#### 19. Irudia.

Kultura- eta sormen-arloko lanbideetan erregistratutako aldi baterako kontratuak, iraupenaren arabera. 2013-2015.



Iturria: Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzua. Eusko Jaurlaritzia.


### Enpresa txikiek egindako kontratazioen pisuak gora egin du

50 langile baino gehiago dituzten enpresek egindako kontratu berriak **2013an kontratu guztien % 44,7 izatetik % 29,5 izatera igaro dira 2015ean**. Termino absolututan, 2.797 kontratu gutxiago izan dira.

Ehunekoaren jaitsiera hori enpresa txikietan islatzen da, ; **izan ere, % 10 inguru handitu dira horietan kontratuak. 9.698 enpresa txiki ziren 2013an (% 23,7) eta 18.585, berriz, 2015ean (% 35,8).**

## 20. Irudia.

Kultura eta sormen arloko lanbideetan erregistratutako kontratuak, enpresa kontratatzaileen tamainaren arabera. 2013-2015.



Iturria: Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzua. Eusko Jaurlaritzia.


## Nabarmen areagotu dira artista sortzaileen eta interpretatzaileen kontratazioak

Kultura- eta sormen-arloko jardueretan erregistratutako kontratazioek gora egin dute batean, honako arlo hauei lotutako kontratu gehiago egin direlako egin dute gora: **artista sortzaileak eta interpretatzaileak**; jolas-, kultura- eta kirol-jarduerak; ikus-entzunezkoetako, irrati-difusio eta telekomunikazioetako grabazio-teknikariak eta arte grafikoetako ofizialak eta langileak eta antzekoak.

**2013-2015 epealdian, 4.356 kontratu gehiago egin zitzaizkien artista sortzaileei eta interpretatzaileei.**

## 21. Irudia.

Erregistratutako kontratuen kopurua gehien aldatu duten kultura- eta sormen-arloko lanbideak. 2013-2015.



Iturria: Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzua. Eusko Jaurlaritzia.

## Emakumeen kontratazioak behera egin du


Emakumeen kontratuek behera egin dute pixkanaka; % 55,2 izatetik (2013an) % 49,8 izatera (2015ean).

## Biztanle gazteenak kontratatu dituzte gehienbat

Kontratuen % 57,4 34 urtetik beherako pertsonei egin zaizkie. Ikasketa mailari dagokionez, **bigarren hezkuntzako ikasketak dituzten pertsonak kontratatzen dira gehienbat**; pixkanaka egin dute gora kontrataziook (% 39,0 2013an eta % 46,8 2015ean). Ikasketa profesionalak dituzten pertsonak pixka bat areagotu dira (% 25,2), eta lizentziadun eta graduondokodun gutxiago kontratatzeko joera dago (% 32,0 2013an eta % 20,6 2015ean).

**22. Irudia.**

Kultura- eta sormen-arloko lanbideetan  
2013-2015 epealdian erregistratutako kontratuak.




Iturria: Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzua. Eusko Jaurlaritza.

**Kontratazioek behera egin dute Bizkaian**

Lurraldean arabera, ikusten da **Bizkaiko kontratazioen kopurua jaitsi egin dela; 2013an guztien % 55,0 izatetik % 45,3 izatera igaro da 2015ean.** Gipuzkoan ere behera egin dute kontratazioek, baina eragin txikiagoarekin; 2013ko % 28tik 2015eko % 27,7ra igaro dira. **Arabari ere aldatu da kontratazioen kopurua, baina gora; izan ere, 2013ko % 11,8tik 2015eko % 12,3ra igaro da.** Azkenik, **EAEtik kanpoko kontratazioak** aipatu behar dira; izan ere, % 5,2 ziren 2013an, eta % 14,7, berriz, 2015ean.

**23. Irudia.**

Kultura- eta sormen-arloko jarduera ekonomikoetan erregistratutako kontratuak, enpresa kontratatzailea dagoen lurraldearen arabera. 2013-2015.



Iturria: Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzua. Eusko Jaurlaritza.




## 3.3. Enplegu-eskariak kultura- eta sormen-jardueretan

### Kultura- eta sormen-lanbideetako eskariak behera egin du

2013 eta 2015 artean, Lanbiden kultura- eta sormen-arloko lanbideetako enplegu-eskatzaille gisa erregistratutako langabetuen kopuruak % 9,5 egin du behera; hala, 2015eko abenduan 6.463 izan dira, erregistratutako eskari guztien % 4,3.

#### 24. Irudia.

Kultura- eta sormen-arloko lanbideetan erregistratutako eskari kopuruaren bilakaera. 2013-2015.




Iturria: Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzua. Eusko Jaurlaritzia.

### Arkitektoak, hirigileak eta diseinatzaileak, eskarien buru

Arkitektoak, hirigileak eta diseinatzaileak dira gehien eskatzen diren lanbideak (hamarretik hiru 2015ean). Eta, horien ondoren, jolas-, kultura- eta kirol-jarduerak pixkanaka egin dute gora azken hiru urteetan (% 16,6 ziren 2013an eta % 18,4, berriz, 2015ean). Idazleak, kazetariak eta hizkuntzalariak eskarien % 17aren bueltan daude. Eskarien % 13 inguru artista sortzaileen eta interpretatzaileen eskaerei dagozkie.

#### 25. Irudia.

Erregistratutako eskariak, eskatutako lanbidearen arabera. 2013-2015.



- Beste lanbideak
- Artista sortzaileak eta interpretatzaileak
- Jolas-, kultura- eta kirol-jarduerak
- Arkitektoak
- Idazleak, kazetariak eta hizkuntzalariak

Iturria: Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzua. Eusko Jaurlaritzia.